

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 57/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, onartzen dituen nekezarritza, ustiatzearen eta landa bideen sarbideetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapenerako Planaren baitan; baita laguntza lerro horren 2016rako deialdia ere

Ustiatzeetarako bideak eta landa bideak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2016rako deialdia onartzea (M04 neurriaren baitan ageri da: aktibo finkoetan egindako inbertsioak), 2015-2020 EAEko Landa Garapenerako Programaren barruan, 1305/2013 zenbakidun Arautegiak (EB) eta Eusko Jaurlaritzak haren babespean onartzen duen Esparru Dekretuak ezarritako mugen baitan.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 Arautegiak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENF) bidez, landa garapenerako laguntza arautzen duenak, Kontseiluaren 2005eko irailaren 20ko 1698/2005 Arautegia (EE) indargabetu zuen.

Arautegi horren eta hura osatzen duen Europako Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 807/2014 Arautegi Ordezkatuaren (EB) bidez, xedapen iragankor batzuk gehitu ziren, landa garapenerako politika berriro bultzatu zen, zuzeneko ordainketak eta Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) merkatu neurriak ahalbidetu eta osatzeko helburuz, eta landa garapenerako politika gauzatzeko hartu beharreko neurriak eta laguntza lerroak zehaztu eta ezarri ziren.

Aurreko aldietan egin zen bezala, arautegiaren aginduz, abian jarri beharreko neurrien plangintza egin behar da, eta ondore horretarako, Euskadiko Landa Garapenerako Programa 2015-2020 prestatu da. Arestian aipatutako plangintza tresna horretan jasotzen da eta Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko B (2015) 3479 Betearazpen Erabakiaren bidez onartu zen.

1305/2013 Arautegi berriaren ezarritako neurri eta dirulaguntzen artean dago "Aktibo finkoetan egindako inbertsioak" izenekoak. Arautegiaren 17. artikuluan araututa dago eta haren II. eranskinean zehaztu dira dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak. M04 modura identifikatuta dago 2015-2020 EAEko Landa Garapenerako Programan eta beste azpineurri batzuen artean, "Nekazaritza eta basogintza garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretan inbertsioak egitea" izeneko M04.3 azpineurria barne hartzen du. Azpineurri horrek ustiatzeetarako bideak eta landa bideak eraikitze, egokitzeko, hobetzeko eta mantentzeko dirulaguntzak barne hartzen ditu, besteak beste.

Ustiatzeetarako bideak eta landa bideak eraikitze, egokitzeko, hobetzeko eta mantentzeko dirulaguntzek ez dute ia zerikusirik aipatutako azpineurrian ageri diren gainerako dirulaguntzekin. Lehen horien berezitasunak eta ezpezifikotasuna, Batasunaren arautegietan eskatzen diren baldintza berriak eta beste alde batetik 2014-2020 Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalaren testua kontuan hartuta, beharrezkoa da baldintza horietara egokitzen diren oinarri arautzaileak sortzea eta aurrekoak ezeztatzea. 2015-2020 Landa Garapenerako Programa bera hobeto aplikatzeko, hobe da azpineurri bereko gainerako dirulaguntzetatik aparte joatea. Horrez gain, 2016. urterako deialdia onartu behar da.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ustiategietarako bideak eta landa bideak eraikitze, egokitzeko, hobetzeko eta mantentzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea, foru dekretu honen eranskinari jarraituz. Landa Garapenerako Programaren M04.3 "Nekazaritza eta basogintza garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretan inbertsioak egitea" azpineurrian ageri dira dirulaguntza horiek.

Bigarrena. 2016ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera: bone

– Dirulaguntza zein inbertsiotarako deitu den: deialdi hau jada eginda dauden eta Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan inkribatuta dauden ustiategietarako bideetarako eta landa bideetarako dirulaguntzetarako da, ondorengoetara bideratuta daudenak:

– Egokitzea, hau da, bidearen egiturak eta bere elementu lagungarriek jasandako kalteak konpontzea.

– Hobetzea eta berritzea, hau da, bideak maiz erabiltzearen ondorioz gastatutako zorua berritzea eta hobetzea ere bai.

– Eskaerak aurkezteko tokia eta epea: Aldundiaren Erregistro Orokorrean eta harekin hitzarmena sinatu duten erregistro lagungarrietan, hogeitun egun naturaleko epean, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Dirulaguntza eskatzen duten erakundeek eskaera bakarra aurkeztu beharko dute. Eskaera horretan egin beharreko obra eta jarduketa guztiak agertu beharko dira, eta baita horiek egingo diren bide guztiak ere.

– Kreditu erreserba: 250.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiak 2016. urterako daukan 40101.4601.7620001 "Landa azpiegitura hobetzea" partidara kargatuko direnak (zorpetutakoaren erref.: 16116 40.105.353/000).

Esandako kreditua zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Dirulaguntzen Lege Orokorren Arautegiak, uztailaren 21eko 88/200 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 58. artikuluan ezartzen dituen mugen barruan, bai eta ere aurrekontu partidan edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez.

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteroko deialdiak ebazten dituen ebazpenaren kontra aurkezten diren errekursoak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu honen aurka doazen xedapen guztiak indargabetzea, maila berekoak zein baxuagokoak, eta zehazki honako Foru Dekretuak: 12/2013, martxoaren 26koa; 38/2014, uztailaren 22koa, eta 29/2015, maiatzaren 12koa.

Bosgarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Gasteiz. 2016ko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRAN DE OTÁLORA

ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

Landa bideetako azpiegituretan inbertsioak egiteko dirulaguntzen xedea nekazarien lan baldintzak, segurtasuna eta bizi kalitatea hobetzea da. Horretarako, haien ongizate maila hobetu nahi da eta nekazaritzako ustiategen errentagarritasuna areagotu nahi da, ekoizpe-naren dibertsifikazioa eta lehiakortasuna indartuz, lurraldea modu orekatuan garatuta eta nekazaritzako azpiegituretan hobetuta.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

Foru dekretu honetan bildutako dirulaguntzen onuradunak izango dira bideen tituludunak diren, 3. artikuluan ageri diren inbertsioak eta jarduketak gauzatzen dituzten eta dirulaguntza bat itzultzeko prozedura batean edo zehapen prozedura batean nahastuta ez dauden toki erakundeak eta udalak.

3. artikulua. Laguntza motak

Foru dekretu honetan bildutako dirulaguntzak ustiategietarako bideetan eta landa bideetan honako inbertsioak edo jarduketak egiteko izango dira:

3.1 Bide berriak eraikitzea.

3.2 Aurretik zeuden bideak egokitzea.

3.3 Aurretik zeuden bideak hobetzea eta berritzea.

3.4 Bide mota horietan egin daitezkeen gainerako jarduketak.

3.5 Jarduketa orokorren kostuak, obra proiektua idaztearekin, obra zuzentzearekin, segurtasunaren eta osasunaren gaineko azterlana edo kasua bada segurtasunaren eta osasunaren gaineko oinarritzko azterlana eta beharrezkoak izan daitezkeen eta inbertsio batekin lotutako proiektua zehazten duten azterlan guztiak egitearekin erlazionatutakoena, Nekazaritza Sailak jarduketa horiek gauzatzeko teknikaliririk ez duenean edo beste arrazoi batzuegatik horixe zehazten denean.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduketan hautagarritasun baldintzak

Diruz laguntzeko modukoak izateko, jarduketak edo inbertsioek honako baldintza orokorrak bete beharko dituzte:

4.1 Ustiategietarako bideetan eta landa bideetan egitea. Bide horiek Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak edo udalenak izan beharko dira obren kasuan.

4.2 Ustiategietarako bideak eta landa bideak egokitzeko, hobetzeko eta mantentzeko obren kasuan, bide horiek Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan inskribatuta egon beharko dira eta otsailaren 13ko 6/95 Foru Arauan xedatutakoa bete beharko dute, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeari buruzkoan.

4.3 Eraiki berriak diren edo aurretik zeuden baina erregistro horretan ageri ez diren bideen kasuan, haietan egin beharreko inbertsioak edo jarduketak diruz laguntzeko modukoak izango dira urteroko deialdian hala adierazi bada eta emandako dirulaguntzaren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan inskribatuta geratzen badira.

5. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak

5.1 Honakoak izango dira diruz lagun daitezkeenak:

5.1.1 Ustiategietarako bideak eta landa bideak eraikitzeko, egokitzeko, hobetzeko eta berritzeko obren kostua eta baita arlo horretan egin daitezkeen beste jarduketa batzuk ere.

5.1.2 Foru Dekretu honen 3.5 artikuluan ageri diren jarduketa orokorren kostua.

5.1.3 Balio Erantsiaren gaineko Zerga, dirulaguntzaren onuradunak ordaintzen duenean. Bestela, zerga horren karga berreskuratu edo konpentsatu ahal bada, ez da diruz lagundu daitekeen gastua izango.

5.1.4 Diruz lagun daitekeen gehienezko inbertsioa 50.000 eurokoa izan beharko da (BEZ barne) dirulaguntza eskatzen duen erakunde bakoitzeko.

5.2 Hauek ez dira lagunduko diruz:

5.2.1 Obrak gauzatzeko beharrezkoa denean, ondasunak eta eskubideak desjabetzeko egin beharreko inbertsioaren zenbatekoa.

5.2.2 Proiektuen, azterlanen eta obra zuzendaritzaren kostuak, lan horiek erakunde onuradunen kontura egiten direnean; betiere ezertan eragotzi gabe 5.1.2 artikuluan xedatutakoa.

5.2.3 7 urteko tartean, dirulaguntza bat ematen denetik kontaktzen hasita, jarduketa berbera gauzatzeko denean, ezohiko edo muturreko gertakari naturalek eragindako kalteak konpontzeko denean izan ezik.

5.2.4 3.000,00 eurotik beherako (BEZa barne) inbertsioak edo jarduketak, bide bakoitzeko.

6. artikulua. Kostuak merkatzea

Aurrekontuko kostuak zenbat merkatzen diren ikusteko eta merkatuko prezioetara egokitzeko, proiektuek kontrataziorako prozedurak pasatu beharko dituzte, azaroaren 14ko 3/2011 Legearen arabera dagozkienak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. Kontratu txikiak badira, normalean 3 aurrekontu aurkezteko eskatzen da eta erakunde onuradunak baloratu eta onartu beharko ditu, egoki den esleipen proposamena egiteko.

7. artikulua. Obren kontratazioa

7.1 Bideen tituludunak diren erakunde onuradunek azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateria-tuan xedatutakoa errespetatuz kontratatuko dituzte obrak eta/edo zerbitzuak. Horretarako, Nekazaritza Sailak behar bezala aholkatuko ditu eta esleitu aurretik, lizitazioaren espediente osoaren kopia bidali beharko zaio, Aldizkari Ofizialetan eta Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkiak barne, kontratu txikia ez bada behintzat. Kontratu txikia bada, nahikoa izango da lehenengo ziurtapena egin aurretik prozedura hori jarraitu dela jakinaraztea eta gutxienez hiru eskaintza aurkeztea, ezinezkoa dela justifikatzen ez bada behintzat.

7.2 Era berean, lehenengo ziurtapena egin aurretik, jarraitutako kontratazio espedientea osatzen duten gainerako agirien kopia bidali beharko zaio Nekazaritza Sailari eta baita kontratuaren kopia ere, behar bezala sinatuta, eta horrekin doazen gainerako agiriena, Aldizkari Ofizialetan eta Kontratatzailearen Profilean egindako iragarkiak barne, kontratu txikien kasuan izan ezik. Azken horien kasuan, aurreko atalean xedatutakoa errespetatuko da.

7.3 Nekazaritza Sailak, kontrataziorako jarraitu den prozedura ikusita, harekiko adostasuna edo desadostasuna adierazteko txostena egingo du.

7.4 Esleipenaren prezioa jaisten bada, Nekazaritza Sailak emandako dirulaguntza egokitu-tuko du. Obra ehuneko hamar handitu ahalko da gehienez, aldatutako edo berritutako proiektuak barne hartuta, zenbatekoa areagotu eta aldatu edo berritu den proiektua teknikoki beharrezkoa dela egiaztatzen ez bada behintzat. Azken kasu horretan, hala eskatu beharko zaio Nekazaritza Sailari eta hark egokitzen jotzen badu, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa aldatuko du foru agindu baten bidez.

7.5 Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza kontuan hartuta kalkulatu da dirulaguntzen zenbatekoa, Nekazaritza Sailak onartutako justifikazio teknikorik ez badago behintzat.

8. artikulua. Diruz lagun daitezkeen inbertsioak edo jarduketak aukeratzeko irizpideak

8.1 Honako taldeak ezarri dira diruz lagundu beharreko inbertsioak edo jarduketak aukeratzeko, jarraian adierazitako lehentasun ordenarekin:

1. 1. taldea. Ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea.
2. 2. taldea. Bide berriak eraikitzea.
3. 3. taldea. Aurretik zeuden bideak egokitzea.
4. 4. taldea. Aurretik zeuden bideak hobetzea eta berritzea.
5. 5. taldea. Bideetan egin daitezkeen gainerako jarduketak.

8.2 Talde bakoitzaren baitan, bide bakoitza puntuen arabera barematuko da, bidearen egoera kontuan hartuta:

- 8.2.1 Bide igaroezina: 50 puntu.
- 8.2.2 Erabiltaileentzako oso arriskutsua den bidea: 40 puntu.
- 8.2.3 Egoera txarrean dagoen bidea: 30 puntu.
- 8.2.4 Hala-hola dagoen bidea: 20 puntu.
- 8.2.5 Egoera onean dagoen bidea: 10 puntu.

Talde bakoitzaren baitan puntu gehien lortzen dituztenei emango zaie lehentasuna. Puntu kopuru berdina lortuz gero, sustatzaile txikienen inbertsio proiektuei emango zaie lehentasuna, sustatzaile handien inbertsio proiektuen aldean, ordena honetan:

1. Administrazio batzarrak
2. Udalak

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, aurrekontu txikiena duten inbertsioei emango zaie lehentasuna.

8.3 3.5 artikuluan aipatzen diren jarduketa orokorren kostuak eskatutako dirulaguntzaren xede diren inbertsio edo jarduketekin lotuta daude eta beraz, horien emaitzaren arabera izango da aukeratzeko edo lehentasuna emateko ordena.

8.4 Talde bakoitza hurrengo ginetik egongo da. Talde bateko eskaera guztiei erantzuteko kreditu nahikorik ez badago, ez dira hurrengo taldeetako inbertsioak edo jarduketak aztertuko.

8.5 Deialdia ebatzi ondoren, onuradun izan zirenek uko egiteagatik edo beste edozein arrazoiengatik kreditua sortzen bada, eskakizunak betetzen dituen eta kreditu faltarengatik onuradun izan ez den zerrendako hurrengo inbertsioari edo jarduketari esleituko zaio, beste deialdi bat egin behar izan gabe, lehenago ezarri diren hautaketa irizpideak aplikatzearen ondoriozko ordenari jarraituz. Eskari denak artatu ondoren kreditua egoten jarraituko balu, Sailaren esku geratuko da.

9. artikulua. Laguntzen era, ehunekoa eta zenbatekoa

9.1 Laguntzak zuzeneko dirulaguntzak izango dira, aukera daitezkeen inbertsioaren edo jarduketaren gastu onartuarekiko ehunekoetan. Ondorengo ataletan ageri dira ehuneko horiek eta onartutako inbertsio edo jarduketa osoaren balioaren ehuneko 100ekoak izatera iritsi ahalko dira dirulaguntzak:

9.1.1 Oinarrizko dirulaguntza: ehuneko 60

9.1.2 Oinarrizko dirulaguntza hori gehiagokoa izan ahalko da ondorengo parametroen arabera:

9.1.2.1 Bide berriak eraikitzea: ehuneko 20

9.1.2.2 Aurretik zeuden bideak hobetzea eta berritzea: ehuneko 15

9.1.2.3 Aurretik zeuden bideak egokitzea: ehuneko 5

Gainera, ehuneko horiek ehuneko 10 gehiagokoak izan ahalko dira dirulaguntza ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako azpiegiturak konpontzeko denean.

9.1.3 3.5 artikuluan aipatutako jarduketa orokorren kostua ehuneko 100ean lagunduko da diruz.

9.2. Urteroko deialdi bakoitzean diruz lagundu beharreko inbertsioak edo jarduketak aukeratzeko taldeak, talde bakoitzaren baitako puntuazioa, berdinketak hausteko irizpideak eta aplikatu daitezkeen dirulaguntzaren ehunekoak zehaztu ahalko dira.

9.3 Diruz lagundutako inbertsio edo jarduketan guztirako kostua onartutakoa baino gutxiago izanez gero, foru dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak murriztu egingo dira.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua

10.1 Urtero laguntzen deialdia onartuko da; haren barruan honako hauek jasoko dira:

- Eskaerak non aurkeztu behar diren eta noiz arte aurkez daitezkeen.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Dirulaguntza zein inbertsio edo jarduketa motetarako deitu den.

– Kasua bada, diruz lagundu beharreko inbertsioak edo jarduketak aukeratzeko taldeak, talde bakoitzaren baitan ezarritako puntuazioa, berdinketak hausteko irizpideak, aplikatu daitezkeen dirulaguntzaren ehunekoak eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

10.2 Dirulaguntza jasotzeko eskaerak diruz lagundu nahi diren inbertsioak edo jarduketak egin aurretik aurkeztu beharko dira, inprimaki normalizatuan. Bertan adierazi beharko da erakundeak inbertsioaren edo jarduketaren aurrekontua Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek egitea nahi duen. Hala bada, egin nahi den obraren deskribapen soila egin beharko da eta bestela, egin nahi diren inbertsioen edo jarduketan aurrekontu zehatza egin beharko da, obra unitateen deskribapena, neurketa eta prezioa adieraziz.

10.3 Dirulaguntza jasotzeko eskaera deialdian adierazitako epe barruan aurkeztu ostean ekin ahalko zaio inbertsioari edo jarduketari, kudeaketaz arduratzen den agintaritzak hasi ez duela egiaztatu ondoren, erakundeak eskaera egin ondoren eta Nekazaritza Sailak berariazko baimena eman ondoren.

10.4 Inbertsioak edo jarduketak hondamendi naturalek hondatutako bideak konpontzeko presazko neurriak direnean, horietatik eratorritako gastuak eta inbertsio edo jarduketa horiekin lotutako agirien gastuak hondamendi naturala gertatu den datatik aurrera egin ahalko dira, bidearen jabea den erakundeak Nekazaritza Sailari jakinarazi ondoren. Erakunde horrek dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkeztu beharko du onartzen den lehenengo deialdian.

Obrak dirulaguntza eman aurretik hasten badira, erakunde eskatzailea ez da arlo honetan indarrean dagoen arategiari jarraituz kontrataziorako prozedura betetzetik salbuetsita egongo eta ez du esan nahiko ebazpena aldekoa izango denik. Beraz, ebazpena kontrakoa bada, erakunde kontratatzailearen konturakoak izango dira egindako gastu guztiak.

10.5 Dirulaguntza eskatzeko inprimaki normalizatuarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira, urteroko deialdian beste gauza bat zehazten ez bada:

- Erakunde tituludunaren erabakiaren ziurtagiria, dirulaguntza eskatzea eta egin beharreko inbertsioak edo jarduketak onartzen dituen eta lanak egingo diren bideak zeintzuk diren zehazten duena.

– Kasua bada, gastuen aurrekontua, foru dekretu honen 10.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

– Nekazaritza Saileko zerbitzu teknikoek eskatzen badute, obraren proiektua edo memoria tekniko-ekonomikoa, teknikari eskudunak egindakoa. Honakoak barne hartu beharko ditu, gutxienez:

- * Sustatzailea nor den eta kokapena.
- * Gauzatu beharreko ekintzen deskribapen zehatza eta dirulaguntza zertarako eskatu den.
- * Ezarritako helburuak eta inbertsioarekin aurreikusten diren onurak.
- * Aurreikusitako obren programazioa.
- * Neurketak eta aurrekontu zehatza.
- * Egoera orokorraren eta multzoaren planoak, obra zehazteko.

10.6 Nekazaritza Sailak erabakiko du proiektua edo memoria teknikoa bideragarria den edo ez, aurkeztutako agirien azterketaren arabera. Datu gehiago behar dituela uste badu, eskatu egin ahalko ditu.

10.7 Eskaeraetan akatsak badaude edo osorik ez badaude, instrukzio organoak haiek konpontzeko eskatuko die erakunde interesdunei. 10 laneguneko epea izango dute horretarako, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoak, 42. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

10.8 Eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak berariaz onartuko ditu laguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak.

11. artikulua. Izapidetzea

11.1 Eskaerak aurkezteko epa amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

11.2 Espedientea instruitzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesatuak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoak, 46.3 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

11.3 Foru dekretu honetan aurreikusten diren laguntzak norgehiagoka bidez emango dira, foru dekretu honen 8. artikuluan aurreikusten diren hautaketa irizpideak aintzat hartuta.

11.4 Behin inbertsioak eta jarduketak aztertuta, kide anitzeko balorazio organoak beharrezko txostena prestatuko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuz, ezarritako lehenetsuen arabera irizpideak aplikatuz eta aurrekontuaren eskuragarritasuna kontuan hartuz. Orobat, hala badagokio, inbertsio edo jarduketa bakoitza ezesteko arrazoiak zehaztuko ditu eta baietsitako espedienteek beharkizunak betetzen dituztela azalduko du.

11.5 Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoko kideak honako hauek izango dira:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko burua.
- Landa Azpiegiturako Ataleko eta Uretzatzailearen Bulegoko teknikari bat, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzu horri atxikia.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

12.1 Kide anitzeko balorazio organoak hala proposatuta, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarra duen arautegian oinarrituta. Ebazpen horrek administrazio bidea amaituko du eta bidezkoa izango da haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsio horretarako arauari jarraituz. Aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

12.2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 42. artikuluan xedatutakoaren ildotik, prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko gehienez sei hilabeteko epea izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskaera ezetsi dela esan nahiko du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra) 25.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

12.3 Dirulaguntza emateko ebazpenek emandako dirulaguntzaren ehunekoak eta zenbatekoak eta diruz lagundutako gastua zehaztuko dituzte diruz lagundutako inbertsio edo jarduketa bakoitzeko. Ebazpena negatiboa izenez gero, arrazoiak zehaztu beharko da.

12.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, ere berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa edo jarduketa, diruz lagundutako inbertsioaren gaineko gastua, gauzatzeko epea eta urtekoak eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoiak.

12.5 Europako funtsak ere erabiliz finantzatzen bada, jakinarazpenean adierazi beharko da Europar Batasunak parte hartzen duela finantzaketan; hala, Europar Batasuneko kasuan kasuko funtsak emandako laguntzaren zenbatekoa edo ehunekoa adieraziko da, baita finantzaketan parte hartzen duten gainerako erakundeek emandakoa ere.

12.6 Horrez gain, ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren onuradunak bete beharreko konpromisoak adieraziko dira.

13. artikulua. Laguntzen ordainketa

13.1 Erakunde onuradunei diruz lagundutako inbertsioak edo jarduketak gauzatu ondoren eta honako agiriak aurkeztu ondoren ordainduko zaizkie dirulaguntzak:

– Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, Erregistro Orokorrean aurkeztutakoa. Eskaera horretan erakunde onuradunak dagozkion kobrantza eskubideak kontratista adjudikaziodunari edo hornitzaileei laga nahi dizkiela adierazi beharko du. Horrela, azken horiek egoki den dirulaguntzaren zenbatekoa jasoko dute.

– Diruz lagundutako jarduera bera finantzatu duten diru sarrerak edo dirulaguntzak jaso ez dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena eta bestela, aldi berean jasotako beste diru sarrera batzuen zerranda xehakaturia, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Egindako gastuen gaineko justifikazioa, jatorrizko faktura eta konpubalioztatuarenreko kopia aurkeztuz. Faktura originala zigilu baten bidez kontrolatuko da, adierazten duena Arabako Foru Aldundiak eta LGENFek diruz lagundu dutela, hala balitz.

– Egindako obraren ziurtapena, obrak kontratatu zituen organoak onartutakoa eta obraren zuzendaritzak emandakoa.

Ziurtapen partzialak aurkeztuz gero ere ordainketak egin ahalko dira. Edozein kasutan ere, onuradunak diruz lagundutako obra bukatu beharko du. Ordainketa partzial horiek egiteko, burututako obraren bolumentan egiaztatzen duen ziurtapen teknikoa egon beharko da, obra bolumen horri dagokion faktura aurkeztu beharko da eta ondorengo puntuetan adierazi bezala ordaindu dela egiaztatuko beharko da, kobrantzaren gaineko eskubidea hirugarren bati laga ez bazaio behintzat. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango ordainketa egiaztatzea.

– Faktura osorik ordaindu dela erakusten duen egiaztagiria, bankuko transferentzia baten bidez edo merkataritzako trafiko juridikoan parekoa den eta proba modura balio dezakeen agiri baten bidez, kobrantzaren gaineko eskubideak hirugarren batzuei laga ez bazaizkie. Kasu horretan, nahikoa izango da diruz lagundu ez den ziurtapenaren zatia ordaindu izana egiaztatzea. Transferentzia telematikoa egin bada, banku erakundeak behar bezala zigilatutako frogagiria aurkeztu beharko da.

– Aldez aurretik bidali ez bada, diruz lagundutako obrak edo jarduketak lizitzatzeko jarraitu den kontratazio espedientetik aurkeztu ez diren agirien kopia, kontratista adjudikaziodunak sinatutako kontratua barne, kontratu txikien kasuan izan ezik. Kasu horietan 7.1 artikuluan xedatutakoa beteko da.

Nolanahi ere, 2.500,00 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo bankuko beste tituluren baten bidez egiaztatu beharko dira, urriaren 29ko 7/2012 Legeak, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

13.2 Laguntzaren baten ordainketa urte batean baino gehiagotan zatitu bada, aurreikusitako urteetan ordainduko da, laguntza gordailutu zen aurrekontuen pentzura. Nolanahi ere, azken urtesaria edo ziurtapena ordaintzeko, inbertsioak guztiz gauzatuta egon beharko du.

13.3 Konpromisoko krediturik badago eta aurrekontuko baldintzek hala eskatzen badute, foru dekretu honetan aurreikusita dauden laguntzak zatitu ahal izango dira, gehienez hiru urtetan ordaintzeko.

13.4 Ziurtapenak eta fakturak dirulaguntza jasotzeko eskaera eta obrak hasi ez izanaren akta aurkeztu ondoren aurkeztu beharko dira, jarduketak hondamendi naturalek suntsitutako bideak konpontzeko presazko neurria direnean izan ezik. Kasu horretan, jarduketan data egitateak gertatu ostekoa izan beharko da.

13.5 Obren onarpena, amaierako ziurtapena eta likidazioa egiten direnean Nekazaritza Sailko teknikariak aurrean egongo dira eta oniritzia emango dute. Benetan zein obra egin den egiaztatuko dute, emandako dirulaguntzaren ordainketari begira.

14. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan ageri diren dirulaguntzen onuradunek honakoak egin beharko dituzte:

14.1 Emandako dirulaguntza onartzea eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Dirulaguntza emateko jakinarazpena jasotzen denetik hamar egun baliouduneko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da.

14.2 Nekazaritza Sailaren aurrean obra guztien finantzaketa plana egiaztatzea, organo eskudunak onartu ondoren (udalbatza/alkatetzako dekretua, kontzejua). 15 egun naturaleko epea izango dute horretarako, onarpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Finantzaketa planean ziurtapen edo ordainketa bakoitza kobratzeko eskubidea kontratista adjudikaziodunei edo hornitzaileei lagatzeko nahia adierazi beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak adostasuna adierazteko txostena emango du eta erakunde onuradunak obren lizitaziorako espedientea abiarazi ahalko du.

14.3 Diruz lagundutako inbertsioak edo jarduketak dirulaguntza ematen den urte berean hastera eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako epeetan gauzatzea.

14.4 Behar bezala egiaztatu diren ezinbesteko kausak egon ezean, inbertsioak erabiltzeko eta funtzionatzeko baldintza onetan mantentzea zazpi urtez gutxienez, dirulaguntza ematen denetik kontaktzen hasita.

14.5 Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ogasun sailek, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europar Batasuneko organo eskudunek laguntzari buruz eskatzen duten informazio oro ematea.

14.6 Informazioari eta publizitateari buruz Dirulaguntzen Arautegi Orokorren 31. artikuluan eta Europako Batzordearen uztailaren 17ko 8085/2014 (EB) Beteazpen Erregelamenduaren 2. zenbakian ezarritako betebeharrak betetzea. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez landa garapenari laguntzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu beteazpen erregelamendu horrek.

14.7 Administrazioan zein tokian bertan beharrezko kontrolak egitea ahalbidetzea, honako hauek egiaztatzeko: laguntza behar bezala eman eta garatzen ari dela, lagundutako inbertsioak edo jarduketak egoki gauzatzen ari direla eta ondoren konpromisoari eusten zaiela.

14.8 Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, horiek guztiak egiaztatu eta kontrolatu baitaitezke.

14.9 Erakundean bere teknikariak jartzen baditu obrak zuzentzen, horren berri ematea Nekazaritza Sailari, eta zuinketa egiaztatzeko edo obrak hasteko akta zein egunetan egingo den jakinaraztea.

15. artikulua. Ez betetzeak

15.1 Erakunde onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesari dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharrezko zenbatekoak gutxituko zaizkio, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzietan buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak ezarritakoari jarraiki bidezkoak diren egintzei kalterik egin gabe.

15.2 Foru dekretu honen 14.4 artikuluan ageri den konpromisoa betetzen ez bada, jasotako zenbatekoa itzuli beharko zaio Arabako Foru Ogasunari eta baita aplikatu daitezkeen legezko interesak ere.

15.3 Diruz lagundutako lanak edo jarduketak dirulaguntza emateko ebazpenean adierazitako epean gauzatzen ez badira edo onartutako inbertsioaren zenbatekoaren ehuneko 50 baino gutxiago gauzatzen bada, Nekazaritza Sailak baliozkotutako justifikaziorik gabe, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da. Gainera, ezingo da inbertsio horietarako dirulaguntza gehiagorik eskatu, aipatutako lana edo jarduketa gauzatu behar zen deialdiaren osteko bi deialdietan.

15.4 Finantza plana 14.2 artikuluan ezarritako epean egiaztatzen ez bada, erakunde onuradunak eman zaion dirulaguntzari uko egiten diola ulertuko da eta espedientea artxibatuko da, beste izapiderik egin gabe.

15.5 Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako.

15.6 Nekazaritza Sailaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntzaren itzulketa osoa edo horren zati bat, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik, eta erakunde onuradunari entzun ondoren.

15.7 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

16. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan adierazitako dirulaguntzen onuradunak Arabako Lurralde Historikokoaren Dirulaguntza eta Transferentzietan buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan, Dirulaguntzei

buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak hura aplikatzeko onartu zuen Arautegian eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko arau aplikagarrietan xedatutakoaren menpe egongo dira. Horiek horrela, behartuta egongo dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak, Euskal Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten organoek eskatzen dizkieten agiriak aurkeztera, halaxe xedatzen baitu aipatutako foru arauak 8 i) artikuluan.

17. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

17.1 Foru dekretu honetan aurreikusita dauden laguntzak bateragarriak dira Arabako Foru Aldundiak eta beste Herri Administrazio batzuek ezartzen dituzten laguntzekin. Edonola ere, bateraezinak izango dira helburu bererako Erkidegoaren beste laguntza araubide batzuen baitan eman daitezkeen beste laguntza batzuekin.

17.2. Laguntza bateragarri guztien batura ezin da izan inbertsoaren ehuneko 100 baino gehiago. Horri dagokionez uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Arautegiaren 34. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

18. artikulua. Laguntzak berraztertzea

Dirulaguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko erabakia ere aldatu ahal izango da.

19. artikulua. Finantzaketa

19.1 Dirulaguntza hauetara bideratutako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontuko kredituetatik aterako dira eta kasua bada, ehuneko 53 Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) aterako da.

19.2 Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak finantzatutako dirulaguntzaren zatiaren mugak deialdi bakoitzean finkatuko dira.

19.3 Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak finantzazio gehigarria eman ahalko du, dirulaguntza hauetarako baliabide ekonomikoak handitzera zuzenduta; zenbateko gehigarri hori laguntza nazionaltzat hartuko da, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituen kontura.

19.4 Arabako Foru Aldundiak laguntzaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio erakunde onuradunari, LGENFk finantzatutako zatia, bai Arabako Foru Aldundiak berak finantzatutako zatia. LGENFetik datozen laguntzen zatia Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusiak bere erakunde ordaintzailearen bidez ordainduko dio Arabako Foru Aldundiari, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuak ezarritakoari jarraituz, dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailea eratzen baita. Ordaindu beharreko zenbateko horiek Nekazaritza Sailaren aurrekontu partidetan sartuko dira edo sail horren izenean horretarako irekitako kontuan.

19.5 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzek ez badute jasotzen aurreikusita dagoen Europako finantzaketa, nazioko laguntzatzat joko dira. Kasu horretan, laguntzak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituen bidez finantzatuko dira osorik.